

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

@@@Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko uztailaren 7ko Agindua, Hizkuntza Eskola Ofizialetan ikasleak onartzeko eta matrikulatzeko deialdia arautzen duena 2008-2009 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoan.@@@

Maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntza Lege Organikoak I. Tituluaren VII. Kapituluan arautzen du Hizkuntza Eskola Ofizialetako hizkuntzen irakaskuntza, eta beren esparrua eta egitura ezartzen du.

Bestalde, martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarriak, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Erdi mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozedura arautzen duenak honako hau zehazten du: maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntza Lege Organikoak araututako arte-, hizkuntza- eta kirol-irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetako ikasleen onarpenak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arau bereziei jarraituko diela.

Horren ondorioz,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.- Xedea eta aplikazio-eremua.

Agindu honek 2008-2009 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetan erregimen ofizialean eskoletara doazen ikasleen onarpena eta matrikulazioa arautzen du.

2. artikulua.- Hezkuntza-eskaintza eta plazen aukera.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola bakoitzaren hezkuntza-eskaintza zehazten da Agindu honen I. Eranskinean.

2.- Hizkuntza Eskola Ofizial bakoitzak, Ikastetxeen Zuzendaritzak finkatutako mugen barruan, zenbat talde egongo diren erabakiko du, eta talde bakoitzean gehienez zenbat ikasle, zentroko hizkuntza eta maila bakoitzerako.

3.- Agindu honek araututako onarpen-prozesuko partaideentzat hizkuntza eta maila bakoitzean dagoen plazen aukera kalkulatzeko, talde bakoitzak guztira dituen postuei kendu behar zaie aurreko urteko ikasleak, zentroko errepikatzaileak, eta onartutako arrazoiren bat emanda beste Eskoletatik espedientea lekualdatuta datozen ikasleak, Agindu honen 22. artikuluari jarraituz.

3. artikulua.- Esparruak.

Agindu honen II. Eranskinean zehazten dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskolen esparruak, bakoitzak ematen duen hizkuntza eta maila bakoitzarentzat.

4. artikulua.- Harrera-prozesua egin beharra.

1.- Hizkuntza Eskola Ofizialetan sartzeko, ikasleei harrera-prozesua egin behar zaie kasu hauetan:

a) Eskolara lehenbiziko aldiz datozenen.

b) Erregimen librean Eskolan matrikulatu izandakoak direnean.

c) Lehen erregimen ofizialean matrikulatu, baina ikasketak eten eta aurreko ikasturtean matrikulatu ez direnean.

d) Aurreko urtean erregimen ofizialean matrikulatuta egonik, hurrengo urtean matrikulatzeko lehentasuna galdu -asistentziako hutsegiteengatik edo arrazoi justifikaturik gabe matrikulari uko eginda-, eta berriro irakaskuntza ofizialera bildu nahi dutenean, eskoletara joanez.

e) Eskolan lehendik ere beste hizkuntza batean matrikulatuta daudenean, erregimen ofizialean.

2.- Hizkuntza Eskola Ofizialetan sartzeko ez da harrera-prozesurik bete behar kasu hauetan:

a) Eskoletara joandako ikasle ofizialek aurreko ikasturtea gainditu edo errepikatuko dutenean, hizkuntza berean eta Eskola berean.

b) Aurreko ikasturtean erregimen ofizialean eta hizkuntza berean matrikulatutako ikasleak C1 espezializazio-ikastaroetan onartzerakoan.

c) Eskola batetik bestera espedientea lekualdatzean, aldatu egin delako bizilekua, ikastetxea edo lantokia, dena delakoa agirien bidez justifikatuz, eta baldin eta hizkuntza bereko plazarik badago eskola berrian.

5. artikulua.- Hizkuntzak ikasi ahal izateko baldintzak.

1.- Hizkuntza Eskola Ofizialetan ikasi ahal izateko, ezinbestekoa da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehen bi ikasturteak eginda edukitzea edo Eskola Graduatuaren titulua edukitzea, Eskola Ziurtagiria edo Lehen Ikasketen Ziurtagiria.

2.- Era berean, nahitaezkoa da hamasei urte beteta edukitzea ikasten hasteko urtean. Ikasten hasitako urtean hamalau edo hamabost urte dituztenek ere ikas dezakete, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lehen hizkuntza gisa ikasitakoa ez den beste hizkuntza bat ikasi nahi badute.

3.- Dena dela, eta maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntza Lege Organikoaren 12. Xedapen Iragankorrek dioenez, Lege hori indarrean jartzean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi ikasturteak osaturik dituzten ikasleek edozein hizkuntza ikas dezakete.

4.- Batxiler-titulua dutenak zuzenean has daitezke, nahi badute, Batxilergoan ikasitako atzerriko lehen hezkuntzaren Tarteko Mailako lehen ikasturtean. Tarteko Mailaren lehen ikasturtera modu horretan sartzeak ez du esan nahi, inola ere, aurreko ikasturteak gainditu direnik, eta, beraz, ez du eskubiderik ematen Oinarriko Mailaren Ziurtagiria eskuratzeko.

5.- Espainiar nazionalitatea duten pertsonak ezingo dute ikasi Espainiera Atzerriko Hizkuntza. Beste nazionalitateetako pertsonak

ikastetxeko edozein hizkuntza ikas dezakete, beren ama-hizkuntza izan ezik.

6.- Ezin da matrikulatu aldi berean erregimen ofizialean eta librean ikasturte eta hizkuntza berean.

7.- Erregimen ofizialean matrikula daiteke Oinarrizko Maila, Tarteko Maila eta Maila Aurreratuan gehienez bi urtez ikasturte bakoitzeko. Salbuespen gisa, ikasleak eskatuta eta bere irakasleak hala proposatuta, ikasturte bakoitzeko hirugarren urtez matrikulatzen utz diezaioke zuzendaritza-taldeak.

6. artikulua.- Onarpen-prozesuaren aurreko informazioa.

Onarpen-prozesua hasi aurretik, Hizkuntza Eskola Ofizialek beren iragarki-taulan agertuko dute, eta hala eskatzen duten ikasleen esku jarriko dute informazio hau:

a) Eskolan ematen diren hizkuntzak eta ikastaroak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetan ikasleak onartzeko araudia.

c) Eskabideak aurkezteko epea.

d) Onartutako ikasleen zerrendak noiz argitaratuko diren, bai eta erreklamazioak aurkezteko epea ere.

e) Berdinketarik balego, eskabideak ordenatzeko zozketaren emaitza, hizkuntza bakoitzean.

f) Mailako probak egiteko eta ebaluatzeko irizpideak.

7. artikulua.- Mailako probak.

1.- Hizkuntza Eskola Ofizialek proba zehatzak jarriko dituzte ikasleen esku, eskatutako hizkuntza ezagutzen dutenak maila egokian koka daitezzen, eskabidea aurkeztu aurretik.

2.- Proba horiek borondatezkoak dira, eta, horien bidez, egiten dituztenek eska dezakete, hala nahi badute, araudiaren arabera dagokien mailan baino gorago onartzea.

3.- Mailako probak mintegiek prestatuko dituzte, hizkuntza bakoitzeko maila bakoitzean eska daitezkeen edukien arabera.

4.- Matrikulatu nahi duen hizkuntzan ikasleak daukan maila jakiteko balio du probak, besterik gabe, eta bere borondatez erabaki dezake berez dagokion mailan baino gorago onar dezaten eskatzea, baina probaren emaitza positiboak ez du esan nahi, inola ere, onartuta dagoenik.

5.- Mailako proba eginda goiko ikasturte batean sartzeak ez du esan nahi, inola ere, aurreko ikasturteak gaindituta dituenik, eta, beraz, ez dizkio ematen azpiko mailen ziurtagiriak.

8. artikulua.- Eskabideak aurkeztea.

1.- Hizkuntza Eskola Ofizialetan eskabideak aurkezteko epeak dira 2008ko uztailaren 7 eta 31 artean, biak barne, eta 2008ko irailaren 1 eta 5 artean, biak barne. Era berean, onarpen-eskubideak aurkez daitezke abuztuan, Hizkuntza Eskola Ofizial

bakoitza jendearentzat zabalik dagoen egunetan. Inola ere ez da onartuko ezarritako epetik kanpoko eskabiderik.

2.- Ikasle batek bi hizkuntza desberdinetan edo gehiagotan matrikulatu nahi badu, eskabide bana aurkeztu beharko du, agiri guztiekin batera.

3.- Hizkuntza bakoitzeko eskabide bakarra egin daiteke Eskola berean, eta ez dira onartuko hizkuntza bererako hainbat zentrotan aurkeztutako eskabideak. Norbaitek hizkuntza eta maila bererako hainbat eskabide aurkezten baditu Eskola batean baino gehiagotan, denak baztertuko dira.

4.- Onarpen-eskabideak betetzeko Agindu honen III. Eranskineko inprimakia erabiliko da, eta doan banatuko da Zentro bakoitzean. Ikasi nahi den Zentroan aurkeztu behar da eskabidea.

5.- Ez da eskabiderik onartuko ezarritako epea baino lehenago. Epearen barruan aurkeztutako eskabide guztiak onartu behar dira, eta, hala balegokio, baita barematu ere.

6.- Eskabidea jasotzen duen Zentroak eskatzaile bakoitzari kopia edo ordezkagiri bat emango dio, data eta zigilua jarrita, eskabidea ziurtatzeko.

7.- Eskabideko inprimakiari erantsiko zaizkio barematzeko egoerei dagozkien agiriak. Eskabideak onartzeko epea amaitu ondoren, ez da onartuko agiri berririk.

Eskatzaileak datu faltsuak emanez gero edo informazioa ezkutatuz gero, dagozkion eskubideak galduko ditu.

Puntuazio-eskubidea ematen duten agirietakoren bat ez aurkezteak esan nahi du zero puntu lortzen direla dagokion atalean edo azpiatalean, baina horrek ez du eskabidea ezeztatzen, ez eta gainerako atalen edo azpiatalen puntuazioak ere.

Eskabideak barematzeko aurkeztutako agirien kopia originalekin batera ziurtatu behar dira.

8.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonak horren berri eman behar diote Zentroari, eskabidea aurkezterakoan. Bestela, ez zaie emango behar lezaketen laguntza.

9.- Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera -Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa-, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legearen arabera -Titulartasun Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiei buruzkoa eta Datuen Babeserako Euskal Agentziaren Sorrerakoa-, deialdi hau tramitatzerakoan jasotako datu pertsonalak fitxategi batean sartuko dira, tratatu eta argitaratu ahal izateko partaideen baimenarekin. Fitxategiaren helburua izango da diru-laguntzen deialdi hau eta berarekin lotutako beste edozein prozedura edo espediente administratibo kudeatzea, bai eta parte-hartzaileei deialdiaren bilakaeraz informatzea ere. Fitxategi horren arduraduna Ikastetxeen Zuzendaritza da. Datuak sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak Ikastetxeen Zuzendaritzan balia daitezke; horretarako, helbide honetara joan behar da: Donostia-San Sebastián, 1 01010- Vitoria-Gasteiz.

9. artikulua.- Baremazioa.

1.- Eskabideen kopurua dauden plazen berdina edo txikiagoa denean, aurkeztutako eskabide guztiak onartuko dira. Nolanahi ere baremazioa egin beharko da, ordutegiak aukeratzeari begira eskabideak ordenatzeko.

2.- Hizkuntza eta maila jakin bateko eskabideak eskainitako plazak baino gehiago direnean, eskatzaileen baremazioa egin beharko da, Agindu honen IV. Eranskineko baremoari jarraituz, eta hurrengo artikuluetako arauak aplikatuz.

Zentroko pertsonal administratiboak agiriak berrikusi, eta bakoitzari baremoaren atal eta azpiatal bakoitzean dagozkion puntuen proposamena egingo du. Zentroko Ordezkaritza Organo Gorenari dagokio, edo Organo horren baitan berariaz sortutako Batzordeari, eskabide guztien baremazioa onartzea.

3.- Egon litezkeen berdinketak apurtzeko, baremoko irizpideak banan-banan konparatuko dira, puntuaziorik handiena aintzat hartuz, ordena honetan:

a) Puntuaziorik handiena adinaren atalean.

b) Puntuaziorik handiena bizilekuaren edo lan egiteko edo ikasteko lekuaren hurbiltasunaren atalean.

c) Puntuaziorik handiena ezintasunaren atalean.

d) Puntuaziorik handiena Familia Ugariko kide izatearen atalean.

e) Puntuaziorik handiena egoera profesionalaren edo akademikoaren atalean.

4.- Aurreko irizpide horiek aplikatu ostean berdinketak jarraitzen badu, eskabideak ordenatuko dira deituren eta izenaren ordena alfabetikoari jarraituz (lehen deitura, bigarren deitura eta izena), Agindu honen 10. artikuluko zozketaren arabera hizkuntza bakoitzarentzat ateratako letratik hasita.

Izen-deituren eta izenen ordena NANean agertzen dena (AIZ edo pasaporte, atzeritarren kasuan) izango da. Deitura bat NANean edo AIZan hasten bada partikula batekin (de, del, al, la, etab.), horixe hartuko da kontuan deituraren hasierako letra moduan.

10. artikulua.- Berdinketa dagoenean eskabideak ordenatzeko zozketa.

1.- Berdinketa dagoenean eskabideak ordenatzearen, maiatzaren 9an Donostiako Hizkuntza Eskola Ofizialean zozketa egingo da, eta horko emaitza aplikatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizial guztietan.

11. artikulua.- Eskatzailearen bizilekuari edo lan egiteko edo ikasteko lekuari dagokion baremoa aplikatzeko arauak.

1.- Atal honi dagokion puntuazioa, arrazoi hauetako batengatik bakarrik emango da: eskatzailearen bizilekua, lantokia edo ikasteko tokiarengatik.

2.- Eskatzailearen bizilekua bat ez badator NANekoarekin, errolda-agiriaren bidez ziurtatuko da.

3.- Besterentzat lan egiten duten langileen kasuan, eskatzailearen lantokia ziurtatuko da bertako titularrak edo pertsonal-arduradunak egindako agiri baten bidez.

Nork bere kontura lan egiten duenean, lantokia ziurtatuko da Ekonomia Jardueren gaineko Zergako altaren bidez. Indarrean dagoen araudiari jarraituz, Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emateko behar legalik ez dagoenean, dagokion Udalak luzatutako irekitze-baimenaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

4.- Ikasteko tokitzat hartuko da ikaskuntza arautuak egiten diren zentroa, edozein izanik ere maila, eta hori ziurtatzeko zentroak agiri bat luzatuko du, bertan zehaztuz eskatzailea ikasturte horretan egiten ari den ikasketak eta maila.

12. artikulua.- Ezintasunen bat izateari buruzko baremoaren atala aplikatzeko arauak.

1.- Atal honi dagokion puntuazioa, arrazoi hauetako batengatik bakarrik emango da: eskatzaileak ezintasunen bat izatea, edo, adinez txikia bada, ezintasunen bat dutenak aita, ama, legezko tutorea edo anai-arrebaren bat izatea.

2.- Ezintasuna ziurtatuko da dagokion Lurralde Historikoko Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailak edo horren pareko estatuko organoak luzatutako agiriaren bidez, eta bertan agertuko da elbarritasunaren legezko aitortpena, ezintasuna %33koa edo handiagoa delarik.

3.- Senideren baten ezintasuna alegatzen denean, eskatzailea adinez txikia dela ziurtatzeko erakutsiko da NANA (AIZ edo pasaporte, atzeritarren kasuan), edo Familia Liburua.

4.- Anai-arreba edo gurasoa dela ziurtatzeko, Familia Liburuaren fotokopia erabiliko da. Ikaslearen legezko tutorea dela ziurtatzeko, epaiaren kopia edo dagokion agiri ofiziala erabiliko da.

5.- Atal honetako puntuazioa aplikatzeko orduan, anai-arrebatzat hartuko dira, era berean, familia-unitate berean legezko tutoretzapean, familia-harrera iraunkorrean edo adoptatu aurrekoan dauden adinez txikiak.

6.- Era berean, atal honetako puntuazioa aplikatzeko orduan, ikaslearen zaintza guraso bati bakarrik emana dagoenean, gurasotzat hartuko da zaintzako gurasoaren legezko bikotea ere. Pertsona horren seme-alabak ere ikaslearen anai-arrebatzat hartuko dira, elkarrekin bizi badira. Hori ziurtatzeko, Errolda Ziurtagiria beharko da.

7.- Ikaslearen zaintza duen gurasoaren bikote izatea ziurtatuko da zaintza guraso horri ematen dion epaiaren kopiaren bidez, eta Familia Liburuaren fotokopiaren bidez, non agertzen den ezkondurik dagoela beste pertsonarekin, edo izatezko bikote dela frogatzen duen Ziurtagiri ofizialaren bidez.

13. artikulua.- Familia Ugariko kide izateari buruzko baremoaren atala aplikatzeko arauak.

Familia Ugariko kide izatea ziurtatuko da Estatuko edozein Autonomia Erkidegok luzatutako titulu ofizialaren bidez.

14. artikulua.- Eskatzailearen adinari buruzko baremoaren atala aplikatzeko arauak.

Jaiotza-data Nortasun Agiri Nazionalaren bidez (AIZ edo pasaporte, atzerriarren kasuan), edo jaiotza-agiriaren bidez ziurtatuko da.

15. artikulua.- Egoera profesional edo akademikoari buruzko baremoaren atala aplikatzeko arauak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo edo Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloko zentro publiko edo kontzertatu bateko edo Hizkuntza Eskola Ofizial bateko irakasle izatea ziurtatuko da ikasturte horretan lanean ari den zentroko Zuzendariaren agiri baten bidez, non agertuko diren eskatzailearen izen-deiturak, NAN, eta irakasten dituen mailak.

2.- Unibertsitate-ikasketak, Batxilergoa, Erdi edo Goi Mailako Prestakuntza Zikloak, edo Musika, Dantza, Arte edo Kirol Ikasketa arautuak egiten ari izana ziurtatuko da ikasturte horretan ikasten ari den zentroko Agiri baten bidez, non agertuko diren bere izen-deiturak, NAN, zein ikasketetan dagoen matrikulatuta, eta zein den edo diren ikasten ari den atzerriko lehen edo bigarren hizkuntza/k.

3.- Azken hiru urteotan unibertsitate-ikasketak, Batxilergoa, Erdi edo Goi Mailako Prestakuntza Zikloak, edo Musika, Dantza, Arte edo Kirol ikasketa arautuak amaitu izana ziurtatuko da ikasketak egindako zentroaren Agiri baten bidez, non agertuko diren bere izen-deiturak, NAN, eta ikasketak amaitutako urtea. Urte hori 2005a edo ondorengoa bada puntuatuko da.

16. artikulua.- Zentroko Ordezkaritza Organo Gorenak libreki erabakitako beste egoera batzuei buruzko baremoaren atala aplikatzeko arauak.

1.- Hizkuntza Eskola Ofizialetako Ordezkaritza Organo Gorenek hala nahi balute, eskatzaileei gehienez bost puntu gehiago emateko irizpide bat edo batzuk erabaki ditzakete.

2.- Kasu bakoitzean puntuazio gehigarri hori emateko irizpideek objektiboak izan behar dute, dagokion organoak onartuak, eta eskabideak aurkezteko epea hasi aurretik argitaratuak.

3.- Puntuazio eman daiteke kontzeptu batengatik edo gehiagorengatik. Hainbat kontzepturengatik ematen denean kontzeptu horien artean bana daiteke, edota edozein betetzen bada eman.

4.- Puntu gehigarri hori emateko irizpideak desberdinak izan daitezke maila bakoitzean.

5.- Atal honetako puntuazioa emateko irizpideen artean sar daiteke baremoko beste ataletako kontzeptu bat edo batzuk, eta puntuazioa handituko da erabakitako kopuruan, kontuan hartuz inoiz ezingo direla atal honetan bost puntu gehigarri baino gehiago eman.

6.- Atal honetarako onartutako irizpideen artean inola ere ezingo da finkatu irizpide diskriminatzaileak -jaiolekua, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozial-, eta ezingo da puntuaziorik eman berariaz antolatutako proben edo azterketen emaitzaren arabera.

7.- Hizkuntza Eskola Ofizialetako Ordezkaritza Organo Gorenei dagokie atal honetan finkatutako irizpide bakoitza betetzen dela ziurtatzeko baldintzak erabakitzea.

17. artikulua.- Eskatzaileen behin-behineko zerrenda barematuak eta ordenatuak.

1.- 2008ko irailaren 12an Hizkuntza Eskola Ofizialek argitaratuko dituzte eskatzaileen behin-behineko zerrenda barematuak eta ordenatuak, 2008-2009 ikasturtean eskainiko diren ikastaro eta hizkuntza bakoitzean. Zerrenda horiek ordenatuta joango dira, lortutako puntuazioaren eta berdinketa apurtzeko irizpideen arabera, eta zehaztuko dute eskatzaile bakoitzak lortutako puntuazioa baremoaren atal eta azpiatal bakoitzean.

2.- Irailaren 15 eta 17 artean, biak barne, eskatzaileek behin-behineko zerrenden erreklamazioak aurkez ditzakete. Erreklamazioa dagokion Hizkuntza Eskolan aurkeztu behar da.

3.- Eskola Bakoitzeko Ordezkaritza Organo Gorenak, edo Organo horren barruan berariaz eraturako Batzordeak erreklamazioak aztertu eta hartuko ditu erabakiak, puntuazioa aldatu hala dagokionean, eta, ondorioz, onartuen eta ez-onartuen zerrenda berriak egin.

18. artikulua.- Onartuen eta ez-onartuen behin-betiko zerrendak.

1.- 2008ko irailaren 24an Hizkuntza Eskola Ofizialek argitaratuko dituzte onartuen eta ez-onartuen behin-betiko zerrendak, 2008-2009 ikasturtean eskainiko diren ikastaro eta hizkuntza bakoitzean. Zerrenda horiek ordenatuta joango dira, lortutako puntuazioaren eta berdinketa apurtzeko irizpideen arabera, eta zehaztuko dute eskatzaile bakoitzak lortutako puntuazioa baremoaren atal eta azpiatal bakoitzean. Eskolek 2008ko irailaren 24an bidaliko dute zerrenda horien kopia dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara. Ikastetxeen Unitatea.

2.- Onartuak izan direnek ordutegia aukeratzeko eskubidea izango dute, beren zerrendan agertzen diren ordenan. Onartuen zerrendan egoteak plaza bat bermatzen du beren ikasturtean eta hizkuntzan, baina inola ere ez du bermatzen bakoitzak nahi duen ordutegian izango denik plaza hori.

3.- Onartuak izan ez direnek itxaronzerrenda bat osatuko dute, geratu diren ordena berean.

4.- Behin-betiko zerrenden kontrako erreklamazioa aurkez daiteke Hezkuntzako dagokion Lurralde Ordezkararen aurrean. Erreklamazio hori aurkezteko epea 2008ko urriaren 3an amaituko da.

Administrazioak beharrezkoa iruditzen zaion dokumentazio guztia bil dezake, erreklamazioak erabakitzeko.

Hezkuntzako Lurralde Ordezkariek erabakia hartu beharko du 2008ko urriaren 17a baino lehen, eta horrenbestez amaituko da bide administratiboa.

19. artikulua.- Matrikula egitea.

1.- Onartuak izan direnek Eskola bakoitzeko Zuzendaritzak erabakitako leku, egun eta ordu zehatzetan egin behar dute

matrikula. Bestela, eduki litzaketen eskubide guztiak galduko dituzte. Ikasleak bakarrik matrikula daitezke onartuak izan diren ikasturtean, baina Eskolak ikasturte horretan ikasturte berean elkarren segidako bi ikasturte egiteko ordutegi trinkoa eskaintzen badu, elkarren segidako bi ikasturteetan matrikulatzeko aukera egongo da, dagokion ordutegi trinkoan. Hala eginez gero, bi urteen matrikula ordaindu beharko da.

2.- Hizkuntza Eskola Ofizialek pertsona bakoitzari dagokion lekua, data eta ordu zehatza argitaratuko du, gutxienez 48 ordu lehenagotik.

3.- Onartuak izan direnek matrikula egin ostean plaza hutsik geratuko balitz, itxaronzerrendan daudenei eskainiko zaizkie, zerrendan agertzen diren ordena berean. Itxaronzerrendan daudenak matrikulatu ostean oraindik plaza hutsik geratuko balitz, plaza horiek eskain dakizkieke eskabidea epez kanpo aurkeztu zutenei edo eskatzaile berriei, beti ere eskabidea aurkeztu zen ordenari jarraituz.

4.- Hizkuntza Eskola Ofizialek matrikulatuta dauden ikasleei aukera emango diete izendatutako ordutegia aldatzeko, matrikulazio-prozesuaren ondoren plaza hutsik sortuko balitz.

20. artikulua.- Matrikula aldatzea.

Ikasle bat Agindu honen 7. artikuluan aipatutako probak eginda izendatu zaion ikasturtean matrikulatu, eta ikasturtea hasitakoan ohartuko balitz berari ez dagokion mailan dagoela, 2008ko abenduaren 31 baino lehen eska dezake matrikula aldatzeko justu aurreko edo hurrengo ikasturtera. Eskolak eskabide hori onartu eta matrikula aldatu behar du, baldin eta plaza hutsik geratzen bada eskatutako ikasturtean. Kasu horretan, ikasleak ez du ezer ordaindu behar.

21. artikulua.- Matrikula ezeztatzea.

1.- Edozein ikaslek matrikulari uko egin diezaioke, eskabidea aurkeztuz gero 2008ko abenduaren 31 baino lehen. Arrazoi justifikaturik gabe egiten badu eta hurrengo ikasturtean berriro matrikulatu nahi badu, berriro hartu beharko du parte onarpen-prozesuan.

2.- Data horretatik aurrera, eta 2009ko apirilaren 30a arte, deialdiari uko egitea onartuko da soilik gaixotasun larria, istripu garrantzitsua edo beste edozein gorabehera larri eta ustekabeko gertatu bada, behar bezala justifikatuta dagoela uste badu Zuzendaritza Taldeak, eta Ordezkaritza Organo Gorenak ontzat emanda. Arrazoi horien artean aintzat har daitezke bizileku-aldaketak, lantoki-aldaketak, beste ikasketa ofizial batzuk egiten diren lekuaren aldaketak, etab.

3.- Edozein kasutan, ikasleak uko-eskabideari erantsi beharko dizkio arrazoiak behar bezala eta inongo zalantzarik gabe ziurtatzen duten agiriak. Jasotako instantzia eta agiri guztiak Zentroan artxibatuko dira, dagozkion ondorioetarako.

4.- 2009ko maiatzaren 1etik aurrera, ukoa soilik onartuko da behar bezala justifikatutako istripu edo gaixotasun larria badago, eta erabat ezinezkoa bada ikaslea ebaluazioaren azken probetan egotea, baldin eta oraindik ez badu probetakoren bat egin.

22. artikulua.- Matrikula ofiziala lekualdatzea. Matrikula bizia.

1.- Hizkuntza Eskola batean matrikula ofiziala egin duenak eskubidea du espedientea beste Eskola batera lekualdatzea eskatzeko, aldatu egin delako bizilekuz, lantokiz edo ikasteko tokiz, edo espedientea dagoen Eskolako Zuzendaritza Taldeari zentzuzkoa iruditzen zaion beste edozein arrazoirengatik. Kasu horietan, ikasle ofizialak lehentasuna izango du matrikula egiterakoan Hizkuntza Eskola Ofizial berrian.

2.- 2007-2008 ikasturtean beste Hizkuntza Eskola bateko ikasle ofiziala denak, oro har, matrikulazio-aldia hasi aurretik eskatu beharko du espedientea lekualdatzeko 2008-2009 ikasturterako.

3.- Onarpen- eta matrikula-prozesua egin ondoren, matrikula biziaren espedientea lekualdatzeko eska daiteke 2008ko azaroaren 15etik aurrera, artikuluko honen 1. atalean adierazitako arrazoi justifikatuen arabera, non eta ez den Lurralde batetik besterako aldaketa: orduan, 2008-2009 ikasturteko eskolak hasten diren egunetik aurrera eska daiteke. Bata zein bestea izan, ikaslea Eskola berrian sar daiteke soilik plaza hutsen bat badago dagokion hizkuntzan eta ikasturtean. Hala ez balitz, matrikulari uko egin diezaioke, edo azterketara aurkeztu txanda ofizialean, bere kabuz prestatuta.

4.- Terrorismoaren Biktimak Laguntzeko Programa arautzen duen irailaren 24ko 214/2002 Dekretuaren 8. artikulua dioenaren ildotik, ekintza terrorista baten biktimek, beren seme-alabek edo legezko seme-alabatzat hartuek eskubidea dute espediente akademikoa beste Eskola batera lekualdatzeko, ekintza hori burutu den ikasturte berean.

5.- Espedientea lekualdatu denean, Eskola batek besteari ofizialki igorriko dio ikasleari buruzko dokumentazioa.

23. artikulua.- Hizkuntza Eskola Ofizialeko langile irakasleen eta ez-irakasleen matrikulazioa.

1.- Oro har, ezin da Hizkuntza Eskola Ofizialean matrikulatu, ez erregimen ofizialean ez librean, bertako langile irakaslerik eta ez-irakaslerik. Dena dela, bere Eskolan bertan matrikula daiteke, baldin eta ikasi nahi duen hizkuntza Lurralde Historikoko Eskola horretan bakarrik ematen bada.

2.- Lehen adierazitako arrazoiengatik irakasle bat klaustrokide den Eskola batean matrikulatzen bada, bere azken Probak ebaluatzeko orduan, Hezkuntza Ikuskaritzak Epaimahai berezia izendatuko du, eta bertan egongo dira Hezkuntza Ikuskari bat Presidente-lanak egiten, eta dagokion hizkuntzako bi irakasle, Euskal Autonomia Erkidegoko beste Hizkuntza Eskoletako klaustrokideak direnak, non eta hizkuntza hori ez den Eskola horretan bakarrik ematen.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Eskola bakoitzean Oinarrizko Maila, Tarteko Maila eta Maila Aurreratuko espezializazio-ikastaroetan ikasleak onartzeko orduan zentro bakoitzak erabakitako deialdi eta oinarri zehatzak jarraituko dira, baimena eman ondoren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Ikastetxeetako Zuzendariak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.- Hezkuntza Sailburuordeak ahalmena du Agindu honetan erabakitakoa bete eta aplikatu dadin beharrezko diren xedapenak agintzeko.

Bigarrena.- Agindu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailaren 7a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

I. ERANSKINA

HEZKUNTZA-ESKAINNTZA

1.- Gasteizko Hizkuntza Eskola Ofiziala:

Alemana, Espainiera Atzerriko Hizkuntza, Euskara, Frantsesa eta Ingelesa.

2.- Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala:

Alemana, Espainiera Atzerriko Hizkuntza, Euskara, Frantsesa, Ingelesa, Italiara, Portugesa eta Errusiera.

3.- Bermeoko Hizkuntza Eskola Ofiziala:

Alemana, Euskara, Frantsesa eta Ingelesa.

4.- Barakaldoko Hizkuntza Eskola Ofiziala:

Alemana, Euskara, Frantsesa eta Ingelesa.

5.- Getxoko Hizkuntza Eskola Ofiziala:

Alemana, Euskara, Frantsesa eta Ingelesa.

6.- Durangoko Hizkuntza Eskola Ofiziala:

Alemana, Euskara, Frantsesa eta Ingelesa.

7.- Basauriko Hizkuntza Eskola Ofiziala:

Euskara, Frantsesa eta Ingelesa.

8.- Zallako Hizkuntza Eskola Ofiziala:

Euskara, Frantsesa eta Ingelesa.

9.- Donostiako Hizkuntza Eskola Ofiziala:

Alemana, Espainiera Atzerriko Hizkuntza, Euskara, Frantsesa eta Ingelesa.

10.- Eibarko Hizkuntza Eskola Ofiziala:

Alemana, Euskara, Frantsesa eta Ingelesa.

11.- Irungo Hizkuntza Eskola Ofiziala:

Alemana, Euskara, Frantsesa eta Ingelesa.

12.- Tolosako Hizkuntza Eskola Ofiziala:

Frantsesa eta Ingelesa.

II. ERANSKINA

ESPARRUAK

1.- Gasteizko Hizkuntza Eskola Ofiziala.

Ematen dituen hizkuntza eta mailetan:

Arabako Lurralde Historiko osoa, eta Otxandio eta Ubide udalerriak. (Amurrio, Artziniega, Aiala, Laudio eta Okondo udalerriak Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialaren eremuan ere badaude).

2.- Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala.

a) Alemana, Frantsesa, Euskara eta Ingelesa:

Alonsotegi, Arakaldo, Arantzazu, Areatza, Arrankudiaga, Arrieta, Arrigorriaga, Artea, Artzentaies, Balmaseda, Basauri, Bedia, Bilbo, Derio, Dima, Erandio, Etxebarri, Fruiz, Galdakao, Gamiz-Fika, Gatika, Gordexola, Gueñes, Igorre, Karrantza, Lanestosa, Larrabetzu, Laukiz, Lemoa, Lezama, Loiu, Maruri, Meñaka, Morga, Mungia, Orozko, Sondika, Sopena, Turtzioz, Ugao, Urduña, Zalla, Zamudio, Zaratamo, Zeanuri, Zeberio.

Baita Amurrio, Artziniega, Aiala, Laudio eta Okondo ere (Gasteizko Hizkuntza Eskola Ofizialaren eremuan ere badaude).

b) Espainiera Atzerriko Hizkuntza.

Bizkaiko Lurralde Historiko osoa. Baita Amurrio, Artziniega, Aiala, Laudio eta Okondo ere (Gasteizko Hizkuntza Eskola Ofizialaren eremuan ere badaude).

c) Italiera, Portugesa eta Errusiera:

Euskal Autonomia Erkidego osoa.

3.- Bermeoko Hizkuntza Eskola Ofiziala.

Ematen dituen hizkuntza eta mailetan:

Ajangiz, Arratzu, Bakio, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gauegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz, Sukarrieta.

4.- Barakaldoko Hizkuntza Eskola Ofiziala.

Ematen dituen hizkuntza eta mailetan:

Abanto, Barakaldo, Muskiz, Ortuella, Sestao, Trapagaran eta Zierbena.

5.- Getxoko Hizkuntza Eskola Ofiziala.

Barrika, Berango, Getxo, Gorniz, Lemoiz, Leioa, Plentzia, Portugalete, Santurtzi, Sopela eta Urduliz.

6.- Durangoko Hizkuntza Eskola Ofiziala.

Ematen dituen hizkuntza eta mailetan:

Abadiño, Zornotza, Amoroto, Atxondo, Aulesti, Berriatua, Berriz, Durango, Elorrio, Etxeberria, Garai, Gizaburuaga, Ispaster, Iurreta, Izurtza, Lekeitio, Mañaria, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Ondarroa, Zaldibar.

7.- Zallako Hizkuntza Eskola Ofiziala.

Ematen dituen hizkuntza eta mailetan:

Artzetales, Balmaseda, Gordexola, Güeñes, Karrantza, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz eta Zalla.

8.- Basauriko Hizkuntza Eskola Ofiziala.

Ematen dituen hizkuntza eta mailetan:

Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Etxabarri, Orozko, Ugao, Urduña, Zaratamo eta Galdakao.

9.- Donostiako Hizkuntza Eskola Ofiziala.

a) Frantsesa eta Ingelesa:

Gipuzkoa Lurralde Historiko osoa, Tolosa, Eibar eta Irungo Eskolen eremuko zonaldeak izan ezik. Baita Errearteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia ere (Irungo Hizkuntza Eskola Ofizialaren eremuan ere badaude).

b) Alemana eta Euskara:

Gipuzkoako Lurralde Historiko osoa, Eibar eta Irungo Eskolen eremuko zonaldeak izan ezik. Baita Errearteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia ere (Irungo Hizkuntza Eskola Ofizialaren eremuan ere badaude).

c) Espainiera Atzerriko Hizkuntza:

Gipuzkoako Lurralde Historiko osoa.

10.- Eibarko Hizkuntza Eskola Ofiziala.

a) Frantsesa eta Ingelesa:

Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Deba, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Ermua, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Mallabia, Mendaro, Mutriku, Oñati eta Soraluze.

b) Alemana eta Euskara:

Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Deba, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Ermua, Eskoriatza, Legazpi, Leintz Gatzaga, Mallabia, Mendaro, Mutriku, Oñati, Soraluze, Urretxu eta Zumarraga.

11.- Irungo Hizkuntza Eskola Ofiziala.

Ematen dituen hizkuntza eta mailetan:

Irun eta Hondarribia. Baita Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia ere (Donostiako Hizkuntza Eskola Ofizialaren eremuan ere badaude).

12.- Tolosako Hizkuntza Eskola Ofiziala.

Ematen dituen hizkuntza eta mailetan:

Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga.

III. ERANSKINA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAN ONARPENA ESKATZEKO INPRIMAKIA

_____KO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

DATU PERTSONALAK

Deiturak eta Izena

NAN/AIZ/
Pasaportea

--	--

Jaioterria

Jaioteguna

--	--

Helbidea: kalea, zb., solairua, letra

--

Udalerria

Posta-kodea

--	--

Eskuko telefonoa

Telefono finkoa

--	--

e-maila:

--

Adinez txikia izanez gero: Aita, ama, edo legezko tutorearen datuak
Deiturak eta Izena

NAN/AIZ/
Pasaportea

--	--

Ezintasunen bat justifikatzen du

ESKATUTAKO HIZKUNTZA ETA IKASTURTEA

Hizkuntza	Oinarrizko Maila		Tarteko Maila		Maila Aurreratua	
	1º	2º	1º	2º	1º	2º
Alemana						
Espaniera						
Euskara						
Frantsesa						
Ingelesa						
Italiera						
Portugesa						
Errusiera						

SARRERA-BALDINTZAK BETETZEA:

- 16 urte bete ditu edo beteko ditu 2008an
- 14 edo 15 urte bete ditu edo beteko ditu 2008an, eta Derrigorrezko Bigarren Hizkuntzan lehen hizkuntza moduan ikasitakoa ez den beste hizkuntza batean matrikulatzeko eskatzen du.
- DBH 1 eta 2 gaindituta ditu, Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa indarrean jarri denean.

ESKATUTAKO IKASTURTEAN SARTZEA:

- Matrikulatu nahi denaren aurreko ikasturtea gaindituta dauka
- Batxiler Titulua dauka, eta Batxilergoan ikasitako atzerriko lehen hizkuntzaren Tarteko Mailaren lehen ikasturtean sartzea eskatzen du.
- Mailako Proba egin du, eta bere borondatez eskatzen du araei jarraituz dagokiona baino goragoko ikasturtean sartzea.

2008korena

Sinadura

IV. ERANSKINA

BAREMOA

A) ESKATZAILEAREN ADINA (Kontzeptu ez-metagarriak).

Puntuaziorik handiena atal honetan: 10 puntu.

- 2008an 18 urte edo gehiago betetzearren: 10 puntu.

- 2008an 16 edo 17 urte betetzearren: 5 puntu.

B) ESKATZAILEAREN BIZILEKUA EDO LAN EDO IKASTEKO TOKIA (Kontzeptu ez-metagarriak).

Puntuaziorik handiena atal honetan: 35 puntu.

- Eskatzailearen bizilekua edo lan edo ikasteko tokia zentroaren eremuan badago: 35 puntu.

- Eskatzailearen bizilekua edo lan edo ikasteko tokia zentroaren Lurralde Historikoan badago, baina bere eremutik kanpo: 10 puntu.

- Eskatzailearen bizilekua edo lan edo ikasteko tokia Euskal Autonomia Erkidegoan badago, baina zentroaren Lurralde Historikotik kanpo: 5 puntu.

C) EZINTASUNA (Kontzeptu ez-metagarriak)

Puntuaziorik handiena atal honetan: 5 puntu.

- Eskatzailearen ezintasunagatik: 5 puntu.

- Eskatzailea adinez txikia bada, eta ezintasunen bat duena aita, ama, legezko tutorea edo anai-arrebaren bat bada: 3 puntu.

D) FAMILIA UGARIKO KIDE IZATEA (Kontzeptu ez-metagarriak)

Kategoria orokorreko familia ugariko kide izatea: 2 puntu.

Kategoria bereziko familia ugariko kide izatea: 5 puntu.

Puntuaziorik handiena atal honetan: 5 puntu.

E) EGOERA PROFESIONAL EDO AKADEMIKOA (Kontzeptu ez-metagarriak)

Puntuaziorik handiena atal honetan: 40 puntu.

- Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan eskolak ematen dituzten Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo, Lanbide Heziketako Prestakuntza Ziklo, Hizkuntza Eskola Ofizial edo unibertsitateko irakasleak: 40 puntu.

- Unibertsitate, Batxilergo, Erdi edo Goi Mailako Prestakuntza Ziklo, edo Musika, Dantza, Arte edo Kirol Ikasketa arautuetako ikasleak, beren ikastetxeetan ikasten ari direna ez den beste hizkuntza bat ikasteko eskatzen dutenak: 20 puntu.

- Unibertsitate, Batxilergo, Erdi edo Goi Mailako Prestakuntza Ziklo, edo Musika, Dantza, Arte edo Kirol Ikasketa arautuetako ikasleak, beren ikastetxeetan ikasten ari diren hizkuntza ikasteko eskatzen dutenak: 10 puntu.

- Azken 3 urteetan Unibertsitatea, Batxilergoa, Erdi edo Goi Mailako Prestakuntza Zikloak, edo Musika, Dantza, Arte edo Kirol Ikasketa arautuak amaitu dituzten pertsonak: 5 puntu.

F) ESKOLAKO ORDEZKARITZA-ORGANO GORENAK LIBREKI ERABAKITAKO IRIZPIDEAK

Puntuaziorik handiena atal honetan: 5 puntu.

- Eskolako Ordezkaritza Organo Gorenak libreki erabakitako irizpideak -lehen aipatutakoren bat/batzuk edota beste batzuk-, irizpide publiko, objektibo eta ez-diskriminatzaileekin (jaioterria, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein egoera edo baldintza pertsonal edo sozialengatik): 5 puntu arte.

Irizpideak publiko egin eta jakinarazi behar zaizkio Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritari, eskabideak aurkezteko epea hasi aurretik.